"Internet tresna bat da, eta erabilerak bilakatzen du, bilatzekotan, segurua"

Iratxe Esnaola – Informatika ingeniaria

Jaurlaritzak egin duen azterketako emaitzak modu egokian interpretatzeko asmoz, Iratxe Esnaolarengana jo du BERRIAk. Gai horretan aditua da: Informatika ingeniaria da, eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea.

Gaztetxoen %18,4k baieztatu dute Interneten ezagutu duen norbaitekin geratu dela. Alarma piztu nahi izateko asmorik gabe, baina ez al zaizu datu adierazgarria iruditzen?

Egia da deigarria dela bost haurretatik bat aurrez ezagutu gabeko baina Interneten bitartez topatutako pertsonekin elkartzea. Baina datu hori zuzen interpretatzeko, ezinbestekoa da jakitea norekin geratu diren eta zertarako. Horren arabera, adineko lagunak egiteko bidetzat edo benetan arriskutsua izan daitekeen ekintzatzat jo daiteke.

Gaztetxoen %90ek erabiltzen dute sarea. Gazteei irakatsi al zaie Internet erabiltzen

Egungo haur eta nerabeentzat Internet euren bizitzaren zati da, horrekin jaio baitira. Internet erabiltzen ikasi dute; inoren laguntzarik gabe askok, baina ondo eta modu arduratsuan erabiltzen irakatsi behar zaie, gehienetan ez baitira arriskuen jabe, eta horrek erabilera desegokia eragin dezakeelako. Internet ondo erabiltzeko, minimo batzuk honako hauek izan daitezke: kalitatezko bilaketak egiten jakitea, hots, bilatzen dutena aurkitzea; modu seguruan nabigatzea; hau da, pribatutasuna gordetzea; eta, oro har, eskura dituzten tresnak modu arduratsuan erabiltzea; esaterako, eskaintzen dioten denbora kontrolatuz.

Internet segurua al da

Internet sare teknologiko bat da. Tresna bat, kanal bat. Eta kalean edota errepidean gertatzen den bezala, Internetek ere segurtasun neurri batzuk hartzea eskatzen du. Alegia, Internet tresna bat da, eta erabilerak bilakatzen du, bilakatzekotan, tresna segurua.

Gazteen erabilera kontrolatu beharko litzatekeela uste duzu?

Internet erabiltzea beste aktibitate bat bezala ulertu behar da. Eta kontrolatzekotan, aktibitate horri eskaintzen dioten denbora da. Alegia, Internet ondo erabiltzen irakatsiz gero, ez dugu non ibiltzen diren kontrolatu behar, zenbat denboraz baizik.

Facebook, sare sozialak... oso zabalduta daude egun, eta tresna horien erabiltzaile ohikoak gaztetxoak dira. Horrek ez al du sortu harremanak egiteko beste modu bat?

Haur eta nerabeek sare sozialak sozializatzeko erabiltzen dituzte. Alegia, sare soziala erabiliz, hortik kanpo dituzten harremanak beste modu batean eta beste bide batetik elikatzen dituzte. Hortaz, sare sozialak ez dira, hein handi batean, harreman berriak egiteko erabiltzen, jada sortuak daudenak hedatzeko baizik

Guraso gehienei kezkatzen die seme-alabek arriskuren bat topatzea sarean. Ez dakite, ordea, arriskuak saihesteko zer egin dezaketen.

Tresnak erabiltzen ikasten da tresna horiek nola erabili. Eta, beraz, gurasoak tresna horiek erabiltzen trebatzea ezinbestekoa da, horrela soilik izango baitira gai euren seme-alabei irakasteko tresna horiek nola erabili eta nola ez. Alfabetizazio teknologiko hori instituzioen ardura izan daiteke, baina, neurri handi batean, gurasoen ardura ere bada. Autoikaskuntza aktiboan pausoak eman behar dituzte.

© Agintzari S. Coop. de Iniciativa Social, 2008

Todos los derechos reservados. Este documento puede ser redistribuido, reenviado, copiado o citado, siempre que no sea modificado o utilizado con fines comerciales.
Incluye esta nota, así como la referencia a Agintzari S. Coop. de Iniciativa Social, junto con el correo electrónico: **gurasoena@gurasoena.org** y la dirección **www.gurasoena.org.**
Muchas gracias

Azterketako daturen batek atentzioa eman al dizu?

Datu batzuk oso deigarriak egin zaizkit, eta bi aipatuko ditut. Batetik, kontrolaren izenean, 10 eta 12 urteko haurren %63,1 sakelako baten jabe izatea. Ulertzekoa da psikologoek erabilera horren eta epe luzera osasunean izan dezakeen eraginaren gainean adierazitako kezka. Eta, bestetik, iruditzen zait agerian gelditu dela haur eta nerabeek teknologien eremuan duten pertzepzio faltsua eta, ondorioz, erabilera arduratsuaren gaineko ezjakintasuna. %61ek modu seguruan nabigatzen dutela uste dute, nahiz ziur aski ez dakiten modu seguruan nabigatzea zer den. %7,9k bere telefono zenbakia eskatzen dion edozeini ematen dio; eta, kamera digitalak nonahi dauden garaiotan, %41 ez da kezkatzen erabilera masiboaz.

"BERRIA"
A. Solabarrieta
24 de Octubre de 2010

© Agintzari S. Coop. de Iniciativa Social, 2008
Todos los derechos reservados. Este documento puede ser redistribuido, reenviado, copiado o citado, siempre que no sea modificado o utilizado con fines comerciales.
Incluye esta nota, así como la referencia a Agintzari S. Coop. de Iniciativa Social, junto con el correo electrónico: **gurasoena@gurasoena.org** y la dirección **www.gurasoena.org.**
Muchas gracias